

KULTURKRITIKA

» LIBURUA

Itzuli izan balitz zer



Igor Estankona

Martin Bidaurrek-eta gura izan zuten muntatu beste Lubaki Banda bat, baina lainoen zain geratu ziren gero. Martin Bidaurrentzat itsaso zikina da izara gris bat, *Itzulera* da poema liburu bat joan-etorrikoa, etengabe dabile-na lehenaldira eginez etorkizuna barruntatu nahian.

Uneka gogorarazi dit Peru Iparragirre (Okzitaniako Tolosa, 1996) eta haren kamera eta haren gelatinan errebelatutako argazki aldakorak. Nostalgia arako adina justu-justu leukake Peru Iparragirrek, eta jada etorkizuna botako luke faltan liburu honetan. Baina estetikaren zentzu klasikoa dauka liburu honek era berean, Bordaxuri akordatu eragiten duena.

Inoiz ez ditu esaten gauzak zehatzegi Martin Bidaur delako honek, eta agian horregatik lortzen du zorroztasun hain harrigarria: "Gaurtik aurrera ez dut/ sekula gehiago izanen etxerik/ motxila honetan ez dira/ gurasoak kabitzen/ haiekin zer egingo ote duten/ iluntzean naramate dagoeneko/ inora ez doan bidean behe-ra". *Itzulera* erraz ulertzen den bere baitan bildutako misterio bat da. *Itzulera* den ihes eder horretan idazten du poetak hemen geratu gura duela.


Barne gatazkak eta beldurrak, bizitza eta heriotzaren presentzia, dena da hemen ahaztura, gogoratzearen bidez: "Haur denboran/ eskola katolikoan/ ikaskide batek". Poema oinazetsu eta trankilen bidez pertsonala dena kontatzen du, eta hein berean kontatzen du mundua.

Itzulera

MARTIN BIDAUR

Susa, 2017

Martin Bidaur idazlea. Sortzetiko izenez Peru Iparragirre da (Tolosa, Okzitania, 1996).



Lirismo errealista biluzi hori, Parisi dedikatuturiko zatian batez ere, azkenaldian irakurri dudana poesia ondratu, gordin eta ederrena da. Testimonioa uzten du haurrena, nerabearena eta poesia sano heldu batekin gizonarena. Testimonioa, borrokarena eta ezinbestean aurretik eroan dituen gauzena. Irakurlea inarrosi ez, baina apurka-apurka daroa ezintasunen mundu batera, tokatu zaigunaren kontakizun etsira. Galeretan hil zirenen kontrara, Martin Bidaur errenditzen zaio bizitzari eta aurretik daukagun bideari. Azken ahapaldietan galdetzen dio bere buruari: "Behin eguzkitan erreta/ ba al dago itzaletara/ itzultzeko modurik// alderantzizko bideak/ eraman-go al nau/ inora". Galdera ikurrik behar ez duten galderez beterik dator *Itzulera*. *Itzulera* da liburu bat esperantzari idatzia ernegaziotik. ■